



TXOSTEN METEOROLOGIKOA – 2021KO IRAILA

Iraila, orokorrean, hezea izan zen eta tenperaturari dagokionez oso beroa. Kantauri isurialdean eta bereziki kostaldean, nolabait, udako hilabeteetan baino uda-giro handiagoa egin zuen, hots, batez besteko tenperatura altuagoa izan zen. Muturreko egoerei dagokienez, zaparrada handiek eragindakoak izan ziren gehienak, eta bi gertaeretan zaparrada oso handiak izan ziren. Horrela, XXI. menderako errekor berriak ezarri ziren. Hilaren 6an jazo zen beroa ere ezin da ahaztu, Kantauri isurialdean garai beroko tenperaturarik altuenak neurtu baitziren.

Prezipitazioa

Pilatutako prezipitazioaren arabera, iraila, orokorrean, hezea izan zela esan dezakegu. Zenbait lekutan, ordea, diferentzia nabarmenak daude. Gauzak horrela, Urola Kostan, Arabako Kantaurialdean eta Arabako Errioxan kalifikazioa oso hezea izan zen; aldiz Markina-Ondarroan, Goierri hegoaldean eta Arabako bailaran ñabardura lehorrak daude. Azken finean, prezipitazio eremuan aldakortasun handiak daude, hilabeteen zehar trumoi-ekaitzek izandako joera apetatsuagatik.

Prezipitazio kopuru handienak Gipuzkoako kostaldeko eskualdeetan jaso ziren (Eskas 213.5 mm, Aizarnazabal 194.2 mm, Behobia 149 mm, Añarbe 146.4 mm, Lasarte 144.8 mm). Eremu horretatik kanpo, jarraian Bizkaia barnealdeko estazioetan jaso zen euri gehien (Iruzubieta 140.5 mm, Oiz 134.4 mm, Berna 124.6 mm, Areta 122.2 mm, Cerroja 120.5 mm). Euri gutxien Araba hegoaldean egin zuen (Nanclares 24.9 mm, Zambrana 34.6 mm, Navarrete 35.9 mm, Alegría 42.9 mm, Páganos 45.2 mm). Orokorrean, XXI. mendeko hirugarren irailik euritsuena izan zen, 2009 eta 2004koaren ondoren (baina azken honetatik oso hurbil)

Logikoki, euri-egun kopurua batezbesteko klimatologikoa baino handiagoa izan zen: 12 kostaldean eta 7 barnealdean, Arabako Errioxa barne. Arabako Errioxaren kasuan, ohi baino euri-geun dezente gehiago izan ziren. Hilabete osoan zehar sakabanatu ziren euri-egunak, baina hilaren 15etik 21era izan zen segida hezea nabarmendu behar da, bereziki Kantauri isurialdean. Horien artean, lau egunetan prezipitazioa oso ugaria izan zen (≥ 30 mm), eta horietako batean 60 mm baino gehiago jaso ziren, intentsitate handiko sei zaparrada neurtu ziren (≥ 15 mm/h) eta bi intentsitate oso handikoak (≥ 30 mm/h).

Iraila giro ezegonkorrekin hasi zen. Hilaren 1ean depresio hotz baten ondorioz izandako trumoi-ekaitzen ondoren, hilaren 2an, eguneko erdialdeko orduetan, intentsitate handiagoko zaparradak bota zituen; isurialdeen banalerro inguruan zaparrada handiak eta oso handiak (San Prudentzio 38.4 mm/h, Gorbea 37.5 mm/h, Aixola 24.9 mm/h, Berna 20.7 mm/h). XXI. mendeko orduko intentsitate handieneko balioak dira, bakoitza bere serietan. Gorbearen kasuan, urte osoko baliorik handiena da, ez irailekoa bakarrik.



Hilaren 9an GIDE bati loturiko ezegonkortasun lerro batek EAE zeharkatu zuen mendebaldetik ekialdera, eta Britainiar uharteetara mugitu zen; zaparradak bota zituen eta trumoi-ekaitzak izan ziren azken orduetan. Zaparraden intentsitatea handia izan zen Enkarterri inguruan eta isurialdeen banalerro inguruan (Sodupe-Cadagua 28.2 mm/h, Urkulu 21.8 mm/h, Balmaseda 21.8 mm/h, Zalla 21.3 mm/h, Cerroja 20.8 mm/h, Igorre 19.6 mm/h, Orduña 17.9 mm/h, Areta 16.4 mm/h). Balmasedako eta Cerrojako serietan balio horiek XXI. mendeko iraileko handienak dira. Sodupe-Kadaguako kasuan urte osoko baliorik handiena da, ez irailekoa bakarrik.

Ondoren, hilaren 15etik 16ra bitartean, aska batek zeharkatu zuen Iberiar penintsula. Zaparrada trumoiatsu handiak eta oso handiak bota zituen, bereziki kostaldean, Markina-Ondarroa eskualdetik hasi eta Bidasoa Behera arte (Aizarnazabal, 33.7 mm/h; Berriatua, 33 mm/h, Lasarte 25.9 mm/h, Oiartzun 24.1 mm/h, Behobia 23 mm/h, hilaren 15ean). Hilaren 15eko gauean, zenbait lekutan, pilatutako prezipitazioa garrantzitsua izan zen, 60 mm baino gehiago pilatu ziren lekuren batean (Aizarnazabal 67.5 mm, Oiartzun 51.8 mm, Berriatua 50.5 mm, Behobia 47.3 mm). Hilaren 16ko goizaldean prezipitazioaren intentsitatea handitu egin zen, bereziki Gipuzkoan non zaparrada handiak bota zituen (Eskas 22.2 mm/h, Zarautz 19.6 mm/h, Oiartzun 18.4 mm/h, Aizarnazabal 17.2 mm/h). Hilaren 15ean kostaldeko eskualdeetan dauden estazio batzuetan (Aizarnazabal, Berriatua, Lasarte, Oiartzun) eta Saratxon, mende honetan irailean 10 min pilatutako prezipitazioaren intentsitate handienak neurtu ziren. Bestalde, Aizarnazabalen ordubetean pilatutako prezipitazioa bere serieko orain arteko altuena da, ez irailekoa bakarrik.

Amaitzeko, hilaren 20tik 22ra bitartean beste depresio hotz batek zaparrada handiak utzi zituen. Azpimarragarrienak hilaren 21ekoak; prezipitazio lerroak itsasotik sartu ziren, eta bereziki Arabako Kantauritik Urola Kostara doan eremuan eragin zuten (Areta 24.5 mm/h, Aizarnazabal 22.5 mm/h, Igorre 20.8 mm/h, Mallabia 20.5 mm/h, Alzola 18.9 mm/h, Zarautz 17.6 mm/h, Sodupe-Cadagua 17.6 mm/h). Arratia-Nerbioi eta Durangaldeko estazio batzuetan (Igorre, Urkizu, Iurreta, Oiz) XXI. mendean irailean ordubetean pilatutako prezipitazioa beraien serietako orain arteko altuena izan zen. Oizen, urteko osoko altuena.

Taula 1: Azken urteetan irailean pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012
Deusto	76.9	68.8	53.0	9.3	66.7	83.3	39.9	18.0	63.5	49.7
Lasarte	144.9	116.7	67.7	55.3	111.2	112.5	44.9	58.0	80.8	79.8
Arrasate	92.3	80.1	74.7	33.6	60.1	70.9	50.1	54.6	44.9	57.3
Abetxuko	53.0	49.6	43.2	10.7	15.5	37.6	27.6	95.2	19.0	29.7
Párganos	45.2	36.2	47.7	35.5	2.9	19.5	20.3	46.2	21.6	40.3



Temperatura

Temperaturari dagokionez, iraila oso beroa izan zen. Kostaldean batez besteko temperatura 20 °C ingurukoa izan zen eta Arabako Lautadan 17 eta 18 °C artekoa, 1980-2010 periodo normaleko batezbestekoa baino 1,4 °C altuagoa. XXI. mendeari dagokionez, orain arteko 6. irailik beroena izan da, eta 2006a da serieko lehenena.

Adierazpena agian ez da egokiena, baina azkenean iritsi zen uda kostaldera. Uztaila eta abuztua oso hotzak izan ziren, eta hilabete horietako batez besteko temperaturak iraillekoak baino baxuagoak izan ziren. Eta Kantauri isurialdeko gainerako lekuetan ere gauza berdina gertatu zen; abuztuko balioak antzekoak izan ziren eta uztailekoak baino altuagoak. Gainera, uda osoko egunik beroena irailaren 6a izan zen Kantauri isurialdean.

Kalifikazioa kontuan izanda espero zitekeen moduan, egun bero gehiago izan genituen hotzak baino. Egun hotzak hilaren 18tik 23ra eta 28tik 30era bitartean bildu ziren.

Egun beroen artean, hilaren 6aren ingurukoak nabarmendu behar dira, izan ere Ipar Afrikan jatorria zuen aire masa batek eragin zigun. Temperatura altu iraunkorragatik kostalderako abisua igorri zen hilaren 6an, eta Kantauri barnealderako hilaren 6an eta 7an. Hilaren 6an maximoak 30 °C-tik gorakoak izan ziren ia EAE osoan, mendi inguruetan izan ezik. Balio altuenak 40 °C-tik oso hurbil ibili ziren eta Bizkaiko Kantauriko bailaretan neurtu ziren, baita Bilbo inguruan ere (Sodupe-Cadagua 39.8 °C, Mungia 39.2 °C, Derio 38.2 °C, Galindo 38 °C, Gardea 37.7 °C, Igorre 37.6 °C, Balmaseda 37 °C). Gipuzkoako bailaretan eta kostaldean ere bero handia egin zuen, nahiz eta balioak baxuagoak izan (Ibai Eder 37.5 °C, Estanda 36.6 °C, Arrasate 36.3 °C, Zizurkil 35.9 °C, Lasarte 35.9 °C). Araba erdialdean ez zuen hainbesteko berorik egin, orokorrean maximoak 30-33 °C artekoak izan ziren. Salbuespen gisa aipatu behar da Arabako Errioxan aurreko egunetan izan zirela irailleko maximo absolutuak (Moreda 30.3 °C hilaren 4an, Páganos 30.2 °C hilaren 5ean).

Gainera, hilaren 6tik 7rako gauean hegoaldeko haize tematsuaren ondorioz temperatura ia ez zen batere jaitsi, eta kostaldean 30 °C-tik gorako balioak izan ziren. Izatez, hilaren 7ko temperatura maximoak goizaldean neurtu ziren kostaldeko hainbat lekutan (Mutriku 33.9 °C, Higer 32.1 °C, Oiartzun 31.2 °C, Zarautz 30.6 °C, Punta Galea 30.2 °C). Ia Araba osoan ere gaua tropikala izan zen, leku garaietan eta Arabako Bailaretako zenbait lekutan izan ezik.

Beste zentzu batean, lehen aipatu dugun bezala, egun hotzak udazkeneko ekinokziora hurbiltzen ari ginenean izan ziren eta ia hilabete amaieran; temperatura minimoak barnealdean 10 °C-tik jaisten hasi ziren. Konkretuki, hilaren 30a izan zen irailleko temperatura minimo baxueneko eguna (Iturrieta 3.4 °C, Gorbea 5.4 °C, Sarria 5.6 °C, Otxandio 5.9 °C, Eginio 6.1 °C, Pagoeta 6.1 °C). Kantauri isurialdean ere batezbesteko balioa baino nabarmen baxuagoak izan ziren minimoak (Muxika 7.3 °C, Eskas 7.7 °C, Aitzu 8 °C, Matxinbenta 8 °C, Urkulu 8 °C).



Amaitzeko, intsolazioa sasoi honetan ohikoa izaten dena baino baxuagoa izan zen, %6-12 baxuagoa, mendebaldeko kostaldean izan ezik, han zertxobait altuagoa izan zen. Hiriburuei dagokienez, Bilbon eta Vitoria-Gasteizen eguzki ordu kopurua antzekoa izan zen, 170 ordu inguru, aldiz Donostian txikiagoa, 158 ordu inguru.

Taula 2: Irailean, azken urteetan, neurtutako batez besteko tenperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012
Deusto	20.4	19.5	19.3	20.6	17.6	20.4	18.2	21.3	19.8	19.7
Lasarte	19.2	18.8	18.1	19.3	16.8	19.1	16.6	19.0	18.7	18.7
Arrasate	18.7	17.7	17.1	18.9	15.6	18.4	15.2	19.5	17.6	17.6
Abetxuko	17.2	16.5	16.5	18.3	15.1	17.8	15.0	18.2	17.2	17.1
Páganos	18.6	18.0	17.3	19.1	16.6	19.0	15.9	19.2	17.9	17.5

Haizea

Hiru egoera izan ziren sarrien jazo zirenak hilabeteetan. Lehenengoa Kantaurin aintzira barometrikoa nagusitu zenean. Tokian tokiko haizeak nagusitu ziren eta arratsaldetan ipar-osagaiko haizea sartzen zen. Egun horietan haizearen intentsitatea txikia izan zen orokorrean, bolada gogor batzuekin arratsaldetan, bereziki Arabako estazioetan, eta konkretuki Ilarduian.

Bigarren egoerari dagokionez: Britainiar uharteetan antizikloia edo Europa Erdialdean presio altuak nagusitu ziren, eta depresioak Atlantikoan, Iberiar penintsularen parean. Egun horietan lehen eta bigarren koadranteko haizeak nagusitu ziren, bereziki bigarrenekoak, eta bolada oso gogor batzuk neurtu ziren, batez ere mendi inguruetan edo kostaldeko haizeguneetan, adibidez Matxitxakon. Dena den, barnealdeko haizeguneetan ere nabaritu zen haizearen indarra. Haize-boladarik gogorrena hilaren 13an neurtu zen Matxitxakon (93.5 km/h), hego-osagaiko haizearekin, egun amaieran kostaldean ipar-mendebaldera egin baino lehen.

Azkenik, egun batzuetan Atlantiko antizikloia edo Britainiar uharteetan depresioa agertu ziren, bereziki hilaren 19an eta 20an. Egun haietan laugarren koadranteko haizea nagusitu zen. Haizea bereziki kostaldean (Matxitxako 78.7 km/h hilaren 18an, Santa Clara 71.6 km/h hilaren 20an) eta barnealdeko mendi inguruetan nabaritu zen, baina Araba hegoaldeko estazioetan ere gogor jo zuen, Moredan edo Paganosen, esaterako.

Trumoi-ekaitzei loturiko haize-bolada oso gogor batzuk ere azpimarratzekoak dira. Hilaren 2an arratsaldean trumoi-ekaitz batzuk izan ziren Arabako Lautadan eta Kapilduin (76.9 km/h) eta Arkautin (83.3 km/h) haize-bolada oso gogorrak



neurtu ziren. Hilaren 9an gauean haize-erauntsien lerro batek Trebiñoko estazioan 80.8 km/h-ko bolada eragin zuen.

Analisia

Irailaren 1etik 3ra

Hilabete hasieran eguraldiak ezegonkortzera egin zuen. Abuztu amaieran Portugalen mendebaldean zegoen GIDEa ekialderantz mugitu zen, beraz, Iberiar penintsulako leku askotan eguraldiak ezegonkortzera egin zuen; hainbat lekutan euri-jasa trumoitsuak izan ziren. Gurean, trumoi-ekaitzak hilaren 2an arratsaldean izan ziren, bereziki isurialdeen banalerroan. Hilaren 3an atertzera egin zuen, baina goizean hodei ugari izan genuen.

Irailaren 4tik 8ra

Hilaren 4tik aurrera egualdia egonkortu egin zen. 500 hPa-eko mailan gailur antizikloniko bat sortu zen, ez oso nabarmena, baina Iberiar penintsulatik Britainiar uharteetaraino zabaldu zena. Azalean, presio altuak nagusitu ziren eta hilaren 4an erdigunea Eskozian zuten. Hilaren 5ean ekialderantz mugitu ziren eta presio altuen eragina txikiagotuz joan zen. 500 hPa-eko mailan gailurraren mendebaldean ibar bat sortu zen eta azkenenean zirkulazio orokorretik askatu zen beste GIDE bat sortuz Iberiar penintsularen mendebaldean hilaren 6an. Egun guzti haietan zerua orokorrean oskarbi egon zen, erdi mailako hodei eta goi-hodei batzuekin. Alabaina, azpimarragarriena tenperaturaren igoera izan zen Kantauri isurialdean, hilaren 5ean eta bereziki hilaren 6an. 850 hPa-eko mailan nabarmena izan zen Afrika iparraldean jatorria zuen aire masa beroaren sarrera; gure parean tenperatura 22 °C-raino igo zen. Horrela, azalean 40 °C-tik hurbileko tenperatura maximoak neurtu ziren hilaren 6an Bizkaia barnealdeko bailaretan. Hilaren 7an eta 8an tenperatura, pixkanaka, jaisten joan zen, baina hala ere leku askotan 30 °C ingurukoak izaten jarraitu zuten.

Irailak 9

Hilaren 9an egoera sinoptikoa aldatu egin zen. GIDEa Iberiar penintsularen mendebaldetik Britainiar uharteetara mugitu zen ezegonkortasun handituz. Ezegonkortasun lerro batek zeharkatu zuen gure lurraldea arratsalde-gauean eta zaparradak eta trumoi-ekaitzak eragin zituen egun amaieran; neurtutako prezipitazioa nabarmena izan zen.

Irailaren 10etik 13ra

Hilaren 10ean eguraldia egonkortu egin zen. GIDEa Britainiar uharteetara mugitu ondoren, 500 hPa-eko mailan gailur txiki bat iritsi zen. Azalean presio altuen erdigunea, 1021 hPa-ekoa, Britainian kokatu zen. Eguraldi egonkorra nagusitu zen eta tenperaturak gora egin zuen lurralde osoan; 850 hPa-eko mailan 20 °C-ra iritsi ziren hilaren 12an, eta bereziki 13an, hegoaldeko haizea nagusitu zenean. Ipar isurialdean tenperatura asko igo zen, 34 °C-raino. Gainera, hegoaldeko haizea indartu egin zen Iberiar penintsularen mendebaldean zirkulazio orokorretik askatutako depresio hotz bat zegoelako.



Irailaren 14tik 16ra

Depresio hotza Iberiar penintsulan eragiten hasi zen. Azalean isla txikia izan zuen, baina hainbat ezegonkortasun lerrok eguraldia ezegonkortu egin zuten. Hilaren 14an ezegonkortasun lerroek EAEn mendebaldean eragin zuten, baina hurrengo egunean EAE osoan eragin zuten; trumoi-ekaitzak izan ziren eta zaparradak bota zituen, zenbait lekutan oso handiak. Hilaren 16an, egunaren lehen partean, zaparradekin jarraitu genuen, eta horietako batzuk handiak izan ziren Gipuzkoa ekialdean; pilatutako prezipitazioa oso ugaria izan zen. Alabaina, egunean zehar eguraldiak egonkortzera egin zuen.

Irailaren 17tik 19ra

Eguraldi aldakorra izan genuen, udazken itxurakoa. Aska bat pasa ondoren, tarte txiki batean eguraldia egonkortu egin zen, izan ere Azoreetako antizikloia gerturatu zen. Irailaren 17a eguzkitsua izan zen ia egun osoan. Gipuzkoako zenbait lekutan tenperatura ia 30 °C-ra igo zen. Gauean, ordea, aska bati loturiko fronte hotz batek eragin zigun, Kantaurin barrena mugitu zen eta zaparradak utzi zituen. Hurrengo egunean aska txiki batek zeharkatu zuen Bizkaiko golkoa eguneko erdialdeko orduetan. Ekialderantz mugitu heinean azalean ipar-mendebaldeko haizea nabarmendu zen eta 850 hPa-eko mailan tenperatura 7 °C-raino jaitsi zen. Zaparradak bota zituen, bereziki Gipuzkoa ekialdean. Hilaren 19an atertzera egin zuen denbora tarte laburrean, izan ere egun amaieran beste fronte hotz batek euria ekarri zuen.

Irailaren 20tik 26ra

Atlantikoko antizikloia kontinenterantz zabaldu zen lehen egunetan eta zubi antizikloniko bat sortu zuen hilaren 22an eta 23an; erdigune bat Atlantikoan zegoen eta bestea Alemanian. Antizikloiaren hegoaldean beste GIDE bat sortu zen, lehendik zegoen aska baten hondarrekin; GIDEa atzerantz mugitu zen, Iberiar penintsularen ipar-ekialdetik ipar-mendebaldera. Egoera horrek eguraldia erabat ezegonkortu zuen, zaparrada eta trumoi-ekaitz handiak izan ziren, bai hilaren 21ean bai 22an gauean. Hilaren 23an GIDEa Portugalen kokatu zen eta eguraldia egonkortu egin zen. Alabaina, bere mugimendu kaotikoan, berriro ere Iberiar penintsularen iparraldera mugitu zen hilaren 24an eta 25ean, eta beste behin eragin zigun; arratsaldetan zaparrada txikiak bota zituen. Azalean hegoaldeko haizea nagusitu zen eta horren ondorioz berriro igo zen tenperatura, bereziki ipar isurialdean. Ordutik aurrera, GIDEa iparralderantz mugitu zen eta zirkulazio orokorrak bere baitan hartu zuen. Hilaren 26an zerua hodei gutxirekin edo partez hodeitua egon zen, erdi mailako hodeiekin eta goi-hodeiekin.

Irailaren 27tik 30era

Hilaren azken egunetan egoera sinoptikoa Azoreetako antizikloiaren baitan egon zen; ziri moduan sartu zen Kantauritik. Bestalde, depresio sakon bat zegoen Britainiar uhartean iparraldean. Zirkulazio zonalak itsas fluxua ekarri zuen EAEn eta giro freskoa izan genuen. Gainera, iparraldeko depresioari loturiko fronte batzuen hondarrek zaparrada batzuk utzi zituzten, orokorrean zaparrada txikiak.








Oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: 2021eko iraileko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estazioa	Batez besteko Temp. °C	Temp. max. °C	Temp. max.abs. °C	Temp. min °C	Temp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako euri max l/m ²	Euri- egunak
Deusto	20.4	24.9	37.9	17.0	13.7	0	76.9	16.6	11
Lasarte	19.2	24.2	35.9	15.4	11.0	0	144.9	45.0	13
Arrasate	18.7	24.9	36.3	14.3	9.5	0	92.3	23.2	9
Abetxuko	17.2	23.7	32.5	12.3	7.6	0	53.0	24.6	7
Páganos	18.6	24.3	30.2	14.0	8.3	0	45.2	13.8	6



Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak




Pilatutako prezipitazioa
 Temperatura minimoa
 Batez besteko tenperatura
 Temperatura maximoa




Prezิปitazioaren jokaera


Behatutako prezipitazioa
Precipitación observada




Prezิปitazio normala
Precipitación normal



Prezิปitazio normalarekiko desbideratzea
Desviación respecto a la precipitación normal



Prezิปitazio normalarekiko portzentaia
Porcentaje respecto a la precipitación normal





Muturreko balioak

Irailean ordubeteen pilotutako prezipitazio maximoa

Izena	Aurtengo errekorra (mm/h) 2021eko iraila	Data	Aurreko errekorra (mm/h) XXI mendeko iraila	Data	Estazioa jarritako urtea
Aixola	24.9	02/09/2021	19.2	09/09/2004	1989
Oiz	21.2	21/09/2021	18.5	18/09/2009	1991
Berna	20.7	02/09/2021	16.1	10/09/2019	1992
Bidania	13.8	16/09/2021	13.5	07/09/2014	1992
Urkizu	19.4	21/09/2021	15	21/09/2001	1992
Gorbea	37.5	02/09/2021	21.7	12/09/2005	1992
Balmaseda	21.8	09/09/2021	12.8	12/09/2005	1993
San Prudentzio	38.4	02/09/2021	34.5	09/09/2004	1995
Aizarnazabal	33.6	15/09/2021	20.4	30/09/2014	1996
Igorre	20.8	21/09/2021	18.4	12/09/2005	1999
Sodupe-Cadagua	28.2	09/09/2021	16.4	16/09/2016	2000
Cerroja	20.8	09/09/2021	14.3	16/09/2007	2001
Iurreta	16.7	21/09/2021	15.1	10/09/2019	2001
Behobia	23	15/09/2021	19.7	13/09/2016	2013
Areta	24.5	21/09/2021	21.9	05/09/2004	2013
Kanpezu	18.1	01/09/2021	10.3	15/09/2019	2015
Eskas	22.2	16/09/2021	15.9	10/09/2019	2017
Abetxuko-CHE	18.4	02/09/2021	8.8	18/09/2020	2019

Urtean ordubeteen pilotutako prezipitazio maximoa

Izena	Aurtengo errekorra (mm/h) 2021	Data	Aurreko errekorra (mm/h) XXI mendea	Data	Estazioa jarritako urtea
Oiz	21.2	21/09/2021	20.5	01/07/2018	1991
Gorbea	37.5	02/09/2021	36.5	20/07/2013	1992
Aizarnazabal	33.6	15/09/2021	33.4	30/10/2002	1996
Sodupe-Cadagua	28.2	09/09/2021	19	09/07/2017	2000



Irailean hamar minutuan pilatutako prezipitazio maximoa

Izena	Aurtengo errekorra (mm/10min) 2021ko iraila	Data	Aurreko errekorra (mm/10min) XXI mendeko iraila	Data	Estazioa jarritako urtea
Kapildui	14.4	02/09/2021	11.1	09/09/2018	1991
Oiz	9.3	21/09/2021	6.2	21/09/2001	1991
Berna	10	02/09/2021	8.6	13/09/2016	1992
Gorbea	15.4	02/09/2021	8.2	09/09/2004	1992
Saratxo	10.7	15/09/2021	9.9	26/09/2008	1992
Balmaseda	11.4	09/09/2021	7.5	06/09/2004	1993
Gardea	10.2	09/09/2021	10.1	11/09/2014	1995
Aizarnazabal	11.9	15/09/2021	7.7	07/09/2014	1996
Oiartzun	14.2	15/09/2021	9.3	28/09/2003	1998
Elorrio	12.6	02/09/2021	11.5	16/09/2007	2000
Lasarte	15.9	15/09/2021	12.6	07/09/2014	2000
Abetxuko	12.3	02/09/2021	12	30/09/2009	2001
Berriatua	13.4	15/09/2021	9.8	07/09/2014	2001
Cerroja	11.7	09/09/2021	6.1	14/09/2014	2001
Sodupe-Cadagua	13.6	09/09/2021	7.4	13/09/2016	2001
Trebiño	7.7	09/09/2021	7.4	09/09/2018	2007
Etura	7.9	09/09/2021	4.9	02/09/2015	2012
Iruzubieta	8.5	15/09/2021	7.2	17/09/2014	2012
Kanpezu	8.6	01/09/2021	5.7	21/09/2019	2015
Galdakao	7.2	21/09/2021	5.9	10/09/2019	2017
Abetxuko-CHE	9.2	02/09/2021	4.8	18/09/2020	2019

Urtean hamar minutuan pilatutako prezipitazio maximoa

Izena	Aurtengo errekorra (mm/10min) 2021	Data	Aurreko errekorra (mm/10min) XXI mendea	Data	Estazioa jarritako urtea
Lasarte	15.9	15/09/2021	13.9	18/07/2006	2000
Sodupe-Cadagua	13.6	09/09/2021	8.4	22/08/2015	2001
Cerroja	11.7	09/09/2021	10.3	01/07/2010	2001
Abetxuko	12.3	02/09/2021	12	30/09/2009	2001
Galdakao	7.2	21/09/2021	6.2	24/04/2020	2017



Muturreko egoerak

Irailean 10 abisu hori igorri ziren, ondoren azaltzen diren kausen arabera banatuta: 7 prezipitazio handiagatik, 2 temperatura altu iraunkorregatik eta 1 baso-sute arriskuagatik.

- Hilaren 1ean Atlantikotik depresio hotz bat sartu zen Iberiar penintsulara eta Kantauri ekialdean ezegonkortasuna handitu egin zen; goizaldean eta goizean goiz zaparrada trumoitsuak bota zituen barnealdean. Zaparradak handiak izatera iritsi ziren isurialdeen banalerroan eta Araba hego-ekialdean. Egunaren erdialdeko orduetan atertzera egin zuen, baina arratsaldeko lehen orduetan berriro ere trumoi-ekaitzak sortu ziren Aiara inguruan. Arratsaldeganean zaparrada trumoitsuak beste eskualde batzuetara zabaldu ziren, bereziki Arabara eta Bizkaia mendebaldera, baina eguneko lehen orduetan bezain handiak ez ziren izan. Hilaren 2an goizaldean euria egiten jarraitu zuren, bereziki Kantauri isurialdean, baina trumoi-ekaitzik gabe; goizean atertu egin zuen. Berriro, egunaren erdialdeko orduetan trumoi-ekaitzak sortu ziren eta zaparrada oso handiak utzi zituen ekaitz-lerro batek mendebaldetik ekialdera zeharkatu zuen EAE. Ekaitz-lerroak haize-bolada oso gogorrak eragin zituen Arabako Lautadan eta zaparrada oso handiak utzi zituen isurialdeen banalerro inguruan. Azpimarratzekoak San Prudentzian (38.4 mm/h) eta Gorbean (37.5 mm/h) jasotakoak. Gauean atertu egin zuen eta depresio hotza desagertu egin zen.

Estazioa	Prezipitazioa 10 minutuan hilak 1 (mm)	Ordua UTC
Kanpezu	8.6	04:40
San Prudentzio	7.5	05:10
Etura	6.3	05:10
Agauntza	6.2	04:40
Ozaeta	6.1	05:10
Altube	5.7	18:40

Estazioa	Prezipitazioa ordubete hilak 1 (mm)	Ordua UTC
San Prudentzio	19	05:50
Kanpezu	18.1	05:20
Etura	13.1	05:50
Ozaeta	11.9	05:40
Altube	11.3	18:40
Salvatierra	10	05:30



Estazioa	Prezipitazioa 10 minutuan hilak 2 (mm)	Ordua UTC
San Prudentzio	17.8	16:40
Gorbea	15.4	15:20
Kapildui	14.4	16:40
Elorrio	12.6	16:20
Abetxuko	12.3	16:00
Berna	10	15:40

Estazioa	Prezipitazioa ordubetea hilak 2 (mm)	Ordua UTC
San Prudentzio	38.4	17:20
Gorbea	37.5	16:10
Aixola	24.9	17:10
Berna	20.7	16:10
Kapildui	19.4	17:30
Abetxuko-CHE	18.4	16:40
Arrasate	18.3	17:20
Elorrio	18	16:40
Abetxuko	17.4	16:40
Andoain	16.5	18:10

*Asteazkena, hilak 1: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 12etatik 24etara ordu lokala.
Osteguna, hilak 2: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 22etara ordu lokala.*

- Hilaren 6an gailur bat kokatu zen Iberiar penintsulan, eta erdi mailako geruzan Afrika iparraldean jatorria zuen aire berozko mihi bat zabaldu zen. 850 hPa-eko mailan airearen tenperaturak 20 °C-ak gainditu zituen Kantauri ekialdean hilaren 6ko eguerdian, eta azken orduetan eta hilaren 7ko goizaldean 23-24 °C ingurukoa izatera iritsi zen. Hilaren 7an, azken orduetan, aire beroa ekialderantz erretiratu zen eta Atlantikoan jatorria zuen aire masa hotzago batek ordezkatu zuen. Hilaren 6ko tenperatura maximoak oso altuak izan ziren kostaldean eta Kantauri zonaldeko barnealdean, aldiz Iragate-zonan eta Ebro ondoko eskualdean aire masa beroak ez zuen eragin handirik izan. Hego-ekialdeko haizea ibili zenez, tenperatura altuekin jarraitu zuten gauean eta hilaren 7an goizaldean; kostaldean 30 °C-tik gora egon zen, izatez Zarautzen eguneko tenperatura maximoak goizaldean neurtu zen. Gau tropikala izan zen ia Araba osoan ere, leku garaietan eta Arabako bailarako zenbait lekutan izan ezik. Hilaren 7ko tenperatura maximoak, aldiz, aurreko egunekoak baino zertxobait baxuagoak izan ziren, 2 edo 3 °C jaitsi ziren. Egun amaieran, Atlantikoan jatorria zuen aire masa iritsi zenean, tenperatura jaitsi egin zen eta orduan neurtu ziren eguneko tenperatura minimoak, Arabako zenbait lekutan izan ezik.



Estazioa	Tmin hilak 6 (°C)	Ordua UTC
Jaizkibel	24.6	04:30
Matxitxako	24.2	00:00
Eskas	23.2	03:50
Deusto	21	05:30
Zarautz	21	03:30
Lasarte	18.7	06:10

Estazioa	Tmax hilak 6 (°C)	Ordua UTC
Sodupe-Cadagua	39.8	13:20
Mungia	39.2	14:20
Derio	38.2	13:40
Galindo	38	12:40
Deusto	37.9	13:40
Lasarte	35.8	13:20
Zarautz	31	10:30

Zonaldea	Tmax hilak 6 (°C)	Tmin hilak 6 (°C)
Zona costera	33	20.2
Zona cantábrica interior	36.5	17
Zona de transición	32.8	14.6
Eje del Ebro	31.5	16.6

Estazioa	Tmin hilak 7 (°C)	Ordua UTC
Ilarduia	22.5	07:40
Oleta	22.1	22:20
Salvatierra	21.9	06:40
Deusto	20.8	23:50
Zarautz	19.7	23:30
Lasarte	19.3	23:50

Estazioa	Tmax hilak 7 (°C)	Ordua UTC
Sodupe-Cadagua	36.7	13:50
Ordunte	36.3	14:20
Oleta	35	15:30
Galindo	35	13:50
Deusto	34.4	15:10
Lasarte	30.6	15:30
Zarautz	30.6	00:50



Zonaldea	Tmax hilak 7 (°C)	Tmin hilak 7 (°C)
Zona costera	30.5	19.6
Zona cantábrica interior	32.6	19.4
Zona de transición	28.4	20.2
Eje del Ebro	29.8	19.4

Astelehena, hilak 6: Abisu Horia temperatura altu iraunkorreatik Kostaldean eta Kantauri zonaldeko barnealdean 00etatik 24etara ordu lokala.

Asteartea, hilak 7: Abisu Horia temperatura altu iraunkorreatik Kostaldean eta Kantauri zonaldeko barnealdean 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia baso-sute arriskuagatik 00etatik 24etara.

- Hilaren 15ean, arratsalde-gauean, eta hilaren 16an, egunaren lehen partean, aska sakon batek zeharkatu zuen Iberiar penintsula. Arratsaldeko lehen orduetan han-hemenkako zaparrada trumoitsuak sortu ziren barnealdean; Aiaran nabarmentzeko zaparrada trumoitsuak bota zituen (Saratxo, 21.6 mm/h). Gauean prezipitazioen intentsitatea handitu egin zen Gipuzkoako kostaldean eta Bizkaiko kostaldearen ekialdean, zaparrada handiekin eta oso handi batzuekin (Aizarnazabal, 33.7 mm/h; Berriatua, 33 mm/h); trumoi-ekaitz batzuk ere izan ziren. Gauean Aizarnazabalgo estazioan 60 mm baino gehiago pilatu ziren. Eguneko azken orduetan Kantauri isurialdean atertu egin zuen, Gipuzkoa ipar-ekialdean izan ezik, han euria egiten jarraitu zuen, baina intentsitate ertainarekin. Alabaina, hilaren 16ko goizaldean beste zaparrada batzuk iritsi ziren mendebaldetik eta prezipitazioaren intentsitatea handitu egin zen. Gipuzkoako estazio batzuetan prezipitazioa handia izan zen, baina hilaren 15ean ez bezala, trumoi-ekaitzik ez zen izan, eta prezipitazioaren iraunkortasunagatik izan zen prezipitazioa intentsitate handikoa. Pilatutako prezipitazioa ez zen aurreko egunean bezain handia izan, baina Eskaseko estazioa ia 60 mm-ra iritsi zen (57.6 mm), gainera, ia kopuru guztia goizaldean eta goizean goiz pilatu zen.

Estazioa	Prezipitazioa 10 minutuan, hilak 15 (mm)	Ordua UTC
Lasarte	15.9	20:00
Oiartzun	14.2	20:30
Berriatua	13.4	18:10
Aizarnazabal	11.9	20:40
Saratxo	10.6	16:30

Estazioa	Prezipitazioa ordubetea, hilak 15 (mm)	Ordua UTC
Aizarnazabal	33.6	20:50



Berriatua	33	18:50
Lasarte	25.9	20:50
Oiartzun	24.1	20:50
Behobia	23	21:30
Saratxo	21.6	16:30
Andoain	16.4	18:50
Zambrana	15.9	18:10
Altzola	15.9	19:10

Estazioa	Prezpitazioa 10 minutuan, hilak 16 (mm)	Ordua UTC
Oiartzun	6.3	05:10
Aizarnazabal	5.8	04:30
Zarautz	5.6	04:10
Ereñozu	5.3	02:40
Eskas	5.2	06:10

Estazioa	Prezpitazioa ordubeteen, hilak 16 (mm)	Ordua UTC
Eskas	22.2	06:30
Zarautz	19.6	04:10
Oiartzun	18.4	05:50
Aizarnazabal	17.2	04:50

*Asteazkena, hilak 15: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 24etara, ordu lokala.
Osteguna, hilak 16: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Bizkaian eta Gipuzkoan 00etatik
09etara, ordu lokala.*

- Hilaren 20an depresio hotz bat kokatu zen Kantauri ekialdean eta eguneko ordu askotan zaparradak bota zituen, bereziki Kantauri isurialdean. Orokorrean zaparradak, intentsitate txiki-ertainekoak izan ziren, baina Gipuzkoa ekialdeko zenbait lekutan arratsaldeko azken orduetan gaueko lehen orduetan gogotik egin zuen euria eta zaparrada handi batzuk bota zituen. Hilaren 21eko lehen orduetan depresio hotza Pirinio ingurura mugitu zen eta orokorrean atertzera egin zuen; Kantauri isurialdeko zenbait lekutan soilik bota zituen noizbehinka zaparrada txiki-ertainak. Alabaina, hilaren 21eko arratsaldetik aurrera, depresioak atzerantz egin zuen, hots, ekialdetik mendebaldera mugitzen hasi zen, eta berriro ere EAE parean kokatu zen. Arratsaldean EAE erdialdean zaparrada mardul batzuk bota zituen, zehazki Mutriku inguruan, eta azken orduetan zaparrada lerro batek Kantauri isurialdean zeharkatu zuen ekialdetik mendebaldera. Trumoi-ekaitzak kostaldean soilik izan ziren, baina zaparrada handiak ipar isurialdeko leku askotan bota zituen, bereziki Gipuzkoako kostaldearen mendebaldeko



muturrean eta Bizkaia barnealdean. Hilaren 22ko goizaldean zaparrada ertain bakan batzuk bota zituen oraindik Enkarterrietan (Cerroja, 8.6 mm/h), baina goizeko lehen orduetan depresio hotza aldendu egin zen eta atertu egin zuen.

Estazioa	Prezipitazioa 10 minutuan, hilak 20 (mm)	Ordua UTC
Eskas	5.8	17:20

Estazioa	Prezipitazioa ordubetea, hilak 20 (mm)	Ordua UTC
Eskas	19.8	17:20
Zizurkil	15.9	20:30

Estazioa	Prezipitazioa 10 minutuan, hilak 21 (mm)	Ordua UTC
Zarautz	9.4	20:00
Oiz	9.3	13:30
Sodupe-Cadagua	9.3	23:50
Areta	7.5	22:40
Galdakao	7.2	23:10
Igorre	7.2	22:40

Estazioa	Prezipitazioa ordubetea, hilak 21 (mm)	Ordua UTC
Areta	24.5	23:10
Aizarnazabal	22.5	21:00
Oiz	21.2	22:40
Igorre	20.8	22:50
Mallabia	20.5	22:10
Urkizu	19.4	22:40
Berna	19	22:30
Altzola	18.9	21:40
Zarautz	17.6	20:50
Sodupe-Cadagua	17.6	23:50
Gardea	16.8	23:10
Iurreta	16.7	22:20
Amorebieta	16.1	23:10



Astelehena, hilak 20: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Bizkaian eta Gipuzkoan 03etatik 21etara ordu lokala.

Asteartea, hilak 21: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Bizkaian eta Gipuzkoan 21etatik 24etara ordu lokala.

Asteazkena, hilak 22: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Bizkaian eta Gipuzkoan 00etatik 03etara ordu lokala.



Terminologia

Batez besteko tenperatura: hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen duen egun kopurua.

Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologia gidan aurki daiteke: <http://metodat.euskadi.net/castellano/terminologia.asp>.

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeko daude.